

AntzerkiaBortz gertalditakoaJokolariak :

<u>Pet:</u>	<u>Pettan</u>	: 60 urte	- moda zaharrekoa - idor aire
<u>Kat:</u>	<u>Kattalin</u>	: 50 urte	- emazte akitu eta penatu bat.
<u>Pia:</u>	<u>Piarreño</u>	: 45 urte	- bere gisako karlos bat.
<u>Mic:</u>	<u>Michel</u>	: 25 urte	- eder ta lorios.
<u>M.C.:</u>	<u>Marie-Claire</u>	: 20 urte	- pollit eta moda berriko, ergel aire.
<u>May:</u>	<u>Mayena</u>	: 55 urte	- mihi luze kurios bat.
<u>Dom:</u>	<u>Domingo</u>	: 35 urte	- ontasun gose donado bat.
<u>Alb:</u>	<u>Albert</u>	: 30 urte	- mutil zintzo pausatu bat.
<u>Ext:</u>	<u>Extebe</u>	: 20 urte	- edozoin.
<u>Jos:</u>	<u>Josep</u>	: 25 urte	- kokin.
<u>Kay:</u>	<u>Kayet</u>	: 20 urte	- edozoin.
<u>Man:</u>	<u>Manez</u>	: 25 urte	- edozoin.
<u>Ost:</u>	<u>Ostalera</u>	: 40 urte	- edozoin.
<u>Boz:</u>	<u>Boza</u>		

Lehen gertaldiaJoka lekua : Eskual sukalde bat

Kattalin bakarrik da bere lanetan

- Kat : Jes nun da gizon hura ? Jakinki zer egun handia dugun eta nehor ez dut esku ukaldi baten emaitako; beti nihaur hemen, esklabo bat bezala... .. To... Michel, ekartzen ahal duk hunat, nahi dukalarik sarri presentatzen daukukan neska hura. Nik fitexko badiat aski, beti leher eta zapart eginik lanian...
- Pet : (sartuz) Errazu, mutiko hura juana dea ?
- Kat : Ba, ba, tenora hurbildua zuela erran du. Ekharkitzu otoi bi egur. su huntarat, ez dakit gehiago zoin burutarik lot.
- Pet : Hauk aferak dituen Michelek ere emazte-gaiaren presentatzeko. Jestu gutiagotz egin zintudan ori nik. Orroit zirea ? Orai otoan gararat xerka juan behar; eta tenoreko hô! s'il vous plait! Gu karrosa zahar hartan berdin gostuan gintuzun ori. Gaixo zamaria! Zer pena ukan nuen, hura saldu nuelarik. Ez zen segur ustela.
- Kat : Ekarriak dituzia egur hek oizu ?
- Pet : Ekartzen ditut berehala... Zerbait hun presta zazu egun, laketzeko usaina sendi dezan gure etxekandere gaiak.
- Kat : Ez dira egoiten jateko, Marie-Clairek juan behar omen du sarri berrian, bere etxeko itzulua egin eta. Doi, doia presentatzea dauku eginen.
- Pet : Ikusiko dugu zerika den, salda xorta baten egiteko manerarik baduen bez bederen. Beti hirian egona bada, ez dakit.
- Kat : Bego lehenik jin dadien, ez balinbadaki sobera kozinan, erakutsiko dakot ba nik, ene zaharrian oraino.
- Pet : Ba, funtsian ez zinituen ez zuk ere orai bezen jateko onak egiten ezkont-berri hartan.
- Kat : Ba, edo zuk ez oraiko apetitua.
- Pet : Baditake hori ere.
- Pia : Lapinak bazkatiak ditinat. Sarriko eginak dituzkeen.
- Kat : Gero arropa zikin horiek kenduko dituk; sarri Michel, emazte gaiarekin heldu baita.
- Pia : Ulalala! zer xantza! (ateratzen da)
- Pet : Etxe gibelako pasu horen zeratzerat banoa, berehala hemen naiz.
- Kat : Ez zaitela sobera urrun juan, hek ere jinen baitita.
- Pet : Ez, ez (ateratzen da)

- Pia : (Arr@pa zonbait eskuan) Zoin galtza behar tut ezarri ?
- Kat : Bainan haurra, gameinetian dituk denak prest presta! Hik itsasoan ere ez hezake urik harrapa, trixtea haiz ba bertzenez! Bortan jo egiten dute :
- Kat : Gauza undarrak arraflatuz : Aintzina.
- Mic : (sartuz) Horra ene emazte-gaia, ama.
- M.C. : Egun on etxekonderea.
- Kat : (musu emanez) Bai xuri-ere Marie-Claire, jin zirezte ordian ?
- M.C. : Ba jin gira.
- Kat : Jar zirezte, ez zaxula hemengo desordreari so egin otoi, ezin gauzak lekuratuz ari ninduxun, ez duxu hemen arras hirian bezala.
- M.C. : Han ere bada ba orotarik.
- Kat : Sukalde hau ere nahi nixin egungo xuritu bainan ez nuxu heldu ahal izan. Gizon hok ere beti nunbait ditixit.
- M.C. : (Micheli so irri batekin) Gizon!...
- Pia : (agertuz, duda batekin) E, e, e, egun on.
- M.C. : (xutituz) Bai zuri ere.
- Mic : (xutituz) Hau otto Piarreño, amaren anaia, emazterik ez dixi harrapa-tu ta apezteko ere bokazionea falta zixin...ordian...
- M.C. : (irri eztigno batekin) Aski makur ba beraz.
- Kat : (Piarreñori) Hea gizon hura ageri denez.
- Pia : (ateratuz) Pettan, Pettan.
- Pet : Heldu nuk.
- Kat : Aperitifa xorta bat hartuko duzue; hasteko, bazkaria prest presta dixit
- M.C. : Ez, ez, nik sartu behar dut sarri berean etxekandereak otoizkatua nu, aratsean jendeak badituela eta etxeko itzulia ere egin nahi nuke. Orai galdu denbora harrapatuko dut ba oraino, Jainkoak nahi badu segurik.
- Kat : Ez dixiu dudarik, gu ere xahartzen hasiak eta, badixiu segurki norbaiten beharra, etxe hunen poxibat airosteko.
- Pet : (sartuz) Agur andere gaztea, Jainkoak derauzula egun on.
- M.C. : Bai zuri ere, parte on.
- Mic : Hau duzu aita, delako emazte gai hura: Marie-Claire.
- Pet : Izena ere bera bezen pollita, Bordaberriko baratzean ez da aspaldian, holako arrosarik lilitu.
- M.C. : Neure beharriek ere ez dute alta holakorik usu aditu. (Tenoreari so eginez). Pena dut bainan, denbora arras izartua dut eta utzi beharko zaituztet aldi huntako.
- Pet : Jadanik...
- M.C. : Ba, ba lehen aldi huntan baino gehiago egoiten ahalko naiz agian, bertze aldian.
- Kat : Xato nahi duxularik, lehen urrats hori duxu usaian nekeena, orai egi-na dukeexu hori ere.
- M.C. : (xutituz) Micheli : Tu viens mon chéri ? (besarkatzen du Kattalin eta bertzeri eskua emaiten) Bon, bertze aldi bat arte beraz, izan ongi eta milesker zuen ongi etorri eztiaz.
- Kat : Guk ba xuri, xure lehen bisita goxoaz.
- Pet : Jin gostuan, orai bidea dakixu.
- M.C. : Ez izan beldurrik; bon, tenora juhan zauku, ikus arte beraz eta egon pixkor.
- Mic : Sarri arte.
- Pia : (lasterka) Adio.
- Hiruek : Pidaia on.
- Mic eta M.C. : Ba milesker.
- Pet eta Kat ixtant bat ixilik, Piarreño aldiz so da gibeletik gazte hoieri.
- Kat : (Piarreñori) Haugi barnerat ala orai zauk heldu ezkontzaren gutizia ?
- Pia : Ez ez oraino.
- Pet : (Kattalini) Zer diozu Marie-Clairez ?
- Kat : Ximplea dela iduri du eta ez da mottela ere.
- Pet : Ez, ez, badu hargatik halako andere aire bat.
- Kat : Zer nahi duzu, ez dira denak ukaiten ahal, bego bil dezan hori bederen. Bada aski Eskual herrian, oinezkoeri so egin nahi ez zutenak eta zaldizkorik ez baitute harrapatu. Hor dira orai donado, etxequak xahartuak, atxearen eta lanaren esklabo.

- Pia : Ni iduriak ?
- Kat : Ez die ez denek hi bezala arrena bat etxean.
- Pet : Ontsa pentsatuz eta hala da bertzenez, gure herrian berean, zonbat ezkont gai, lanarekin akituak, bizitzeaz lotsatuak, pentsaketan etsituak. Hogoi urte zuztelarik denak fanfaron, neskak hautaka ibilki : "Hau lodiegi, hura ez aski, hau moko mehea, batto ergela, bertzia grado ttipikoa eta orai hor dira gaizoak, partitzeko berantegi, trixtezia egon behar.
- Kat ; Michelek ere batto bil ordu zuen gero, batere egitekotz, andere handia balinbada, ttipituko da ba denborarekin.
- Pia : Eta ni ?
- Kat : Bah izanen duk ba hire doia, ala norat jua gogo duk ?
- Pia : Bah, ospitalerat ba juaitekotz.
- Kat : Hi ospitalerat, to zortzi egun gane hemen hiz ba serora heiekin samurturik.
- Pet : Kabala horietarat juaiten gira, bazkaria apaila zazu, Piarreño, ardiak emazkik to otoi behereko pentzerat, gero juaen haiz nahi baduk ospitalerat.
- Pia : Bon, baniok.
(Bi gizonak ateratzen dira) (Borta joiten dute)
- Kat : Aintzina: No adio Mayena, zer dion aspaldikoa ?
- May : Bah, bulta huntan beha nindunan leihotik, espos gai horiek heldu zirenez eta ikusi tinat, jin bezen laster jua direla.
- Kat : Michelen emazte gaiak, Marie-Clairek, alon, jua behar zinan aratsalde huntan berian berriz Bordelerat, doi doia presentatzea zaukun egin
- May : Marie-Claire dia izena ?
- Kat : Ba.
- May : Gure buru handi hak ere, ekar baleza nunbaitik Marie bat, klara ez bada ilhuna bederen.
- Kat : Oxtian, erraiten nakonan Pettani, malerus zela oraiko egunean, hoinbertze donadoreen ikustea.
- May : Ba ez dakinat oraiko mutikoez nun duten odola. Gure denborakoez bazu-
tenan gehiago. Larunbat arats guziez, leroan pasatzen zitunan gure etxe sahetsetik. Gure aita zenak badeen gaixoa zonbait oihu eginik. Orai aldiz: merkaturat juaiten tun, igandetan plazarat, han mus partida bat egin, eta heldu ditun etxerat. Eta gero dena zinkuri ariko ditun, oraiko neskek ez laborantzan ari nahi ta holako. Zien Michelek ere ez tin ez Marie-Claire bildu imidoak eta hordagoak botatuz. Gure Domingok ere gaur, goitiik Karlos behar zaukun ba gelditu, alta ez dun ez entzun eskasian.
- Kat : Ontsa dakin no.
- May : Erakon Micheli esposatzen delarik, kabaliertsu bat planttakoa eman dezakon gure horri. Aintzinean ezarriz bederen, deliberatuko dun beharbada. Erran zonbat orenak dira ?
- Kat : Berehala eguerdi.
- May : Bon banion ba, barka zan otoi, hoinbertze denbora galarazirik.
- Kat : Ez tun zer egin, zer nahi dun, kalaka dinau gure deskantxu bakarra.
- May : (ateratuz) Ikus arte beraz Kattalin eta egin zan bazkari.
- Kat : Ba, gisa bera hik ere.
- Pia eta Pet. sartzen dira eta eskuen garbitzen hasten.
- Kat : (azietak ezartzen dituela) Salda partitzen dut, zaizte (Anjelusa hasten, gizonak boneta kentzen dute, denak zeinatzen dira eta oihala)

Bigarren gertaldia

Joka-lekua: oihan bazter bat, bidexka eta jar leku batekin.

Albert - Domingo - Mayena - Michel - Marie-Claire.

Domingo jarriarik dago, makila bat eskuan, xahakoa bizkarretik dilindan, gostuan dago, kabalak alhatzerat emanik. Albert pasatzen zaio ondotik.

Alb : To, adio gaizoa, zer ari haiz ?

Dom : Bah! denbora ezin pasatuz to. Igande aratsaldetan bederen egoiten ahal gaituk gostuan. Frangotan Bordaberriko Piarreño harapatzen diat

itzuli hotan eta ixtant bat egoiten gaituk elgarrekin, drago bat edaten dugula. Barka zak to, ez deat eskaini ere, haugi xirixta bat, etxeko meheño hartarik duk.

Alb : Milesker to batere ez zian gaixtoa. Errak ikusi dituka amoros horiek hantxetan ?

Dom : Ez, nun dira ?

Alb : Hantxet, zuen iturri bazter hartan.

Dom : Bego, bego, gure eskasak ere norbaitek egin behar ditek.

Alb : Badakika nor diren ?

Dom : Ez, ez.

Alb : Bordaberriko Michel duk, bere atxoarekin. Bahaki zer neska duen. Ez dakiat nun bildua duen bainan, bahaki zer behoka den. Ez duk nahi baduk handia, bainan untsaxko itulikatua duk to.

Dom : Ezkontzen omen duk, etxan presentatua dik jadanik.

Alb : Etxerat egiten dea ?

Dom : Ba bixtant duk, norat nahi duk egin dadien ?

Alb : Ez zakiat, ez. Ez dik neska horrek laborantzaz artzeko itxura handirik. Ikusiz haren soinekoak eta begitarte tindatu hura, ez dakiat. Ez diat hurbildanik ikusi bainan urrunerat ere argitzen zion. Ukan behardik horrek bi sosen fantesia eta lau sosen harat hunata.

Dom : Bah! iragan egunean, gure ama ere egona duk bulta bat leihotik beha, nahiz ikusi bainan bera ohartu gabe sartu omen zakok otoan.

Mayena agertzen da makilño bat eskuan.

Alb : (Domingori) Errak nun aipa eta han gerta.

May : Nitaz ari zineztena ba ?

Dom : Ba, erraiten nakon, iragan egunean, bulta bat egona zirela leihotik beha, nahiz Bordaberriko Michelen emazte gaia ikusi.

May : Hantxetan dituk orai ere. Neska horrek iduri dik izarrer so dagola.

Alb : Ba edo gaztenarik izanen den helduden neguan.

May : Zuek baino gehiago duk beti Mixel. Orai ere hementxet zirezte, lapinak beren zilloan bezala.

Dom : Xakurrik ez delarik ondoetan, gostuan egoiten dira hek ere.

May : Zuen adinean, errerik ere ez nindian etxan egonen, holako denborarekin.

Alb : Zer nahi duzu, jiterik ez dugu.

May : Bazinute juaitea bederen, norapait mugitzeko poxibat. Zuen amaren altzotik ez duzue igitu nahi debru etxan haziak.

Dom : Haugi to gure etxerat Albert, arroltze moleta bat janen diuk, etxekandereak egiten badauku segurik.

May : Hola hola tripa joko ba zuek, ez duzue hori baizik pentsatzen. Bon, eginen dautzuet ba zerbait.

Dom : Ale, goazen. (Hiruak abiatzen dira, joka lekua hutsik utziz. Mixel eta Marie-Claire agertzen dira orduan, eskuz esku, Marie-Claire goiti so egiten duela.

Mic : Jar leku hunek iduri luke guretzat egina.

M.C. : Eginen dugu hala baliz bezala, egun erran behar dituztan solasak ez dituzu beharbada hain piztuak kausituko jarriarik.

Mic : (Doi bat harritua) Bai, ohartu naiz oxtian, etzinela egun usaiako omorean eta gostuan; zer duzu bada, ez ahal zira eri bederen ?

M.C. : Ba Michel ba, eri naiz bainan eritasun horren sendatzeko zure baia ukanen dutanez nago pensaketan.

Mic : Zer ez nezake egin nik zuretzat, badakizu zonbat zaitudan maite, zuretzat bakarrik naizela bizi.

M.C. : Ba Michel badakit eta nik ere maite zaitudalakotz naiz penatua zuri mintzatzeko, baitakit neure galdeak trixtatuko zaituela.

Mic : Mintza zaitu hargatik, entseatuko naiz beti zuri plazer egiterat.

M.C. : (ezti ezti) Zure etxea ikusi duñ zure aita amak ere ba, ongi etorri beroa egin dautate eta horien alderateko amodioa ere sartua zaut bihotzean, zuretzat dutanaren sahetsean. Egun ikusi ditut zure oiha (erakutsiz) landa ta pentzeak (ixiltzen da durduzatua)

Mic : Eta gero ?

M.C. : Eta gero erran behar dautzutana da ez nindaikela laket Bordaberrian edo hobeki erraiteko ez girela bizitzen ahalko, nahi badugu oraiko mendeari jarraiki.

- Mic : Zeer, nolaz hori ?
- M.C. : (idor) Ez Michel ez ditake oraiko egunean, familia gazte bat bizi laborantzaz ttipi hoitan eta ikusten dutana da miletan hobekiago gintazkela zu eta ni hiri batean, familia ohorezko baten moldatzeko.
- Mic : (eztiki) Ez Marie-Claire sobera galdegiten dautazu oraikoan. Nolaz uzten ahalko ditut neure aita amak, neure etxe eta herri maiteak ? Zu ezagutu aintzin, horientzat nintzan bakarrik bizi eta zer ditut zuretzat denak utzi beharko ? Ez, ez dezaket hori egin.
- M.C. : Michel so egizu eni, ez naiz zure kaltetan mintzo bainan gure geroaren eta gerokoen onetan. Badakizu maite zaitudala (musu emaiten dio)
- Mic : Hori sobera zaut haatik, ez dut Bordaberria utziko.
- M.C. : Ordian utz nezazu.
- Mic : Bainan nik ere maite zaitut. (Harabots bat entzuten da, Mayena pasatzen da makila eskuan.
- May : Agur jaun andereak.
- M.C. : Agur anderea.
- Mic : Agur Mayena.
- May : To, hi hainzena, barka zak otoi.
- Mic : Ez duzu zer, ori presentatzen dautzut ene emazte gaia, Marie-Claire du izena.
- May : Plazer dut, zure ezagutzaren egitea. Ez dut dudarik laster jin nahiko duzula gure xoko pollit huntarat. Hain da leku xoragarria, primaderan bazter guziak lore, usain goxoz beteak, jendeak iduri du bestarat doala, udan aldiz mila xori ari dira kantuz, oihan huntako aldaxka bakotxaren puntatik. Kantu horier beha, nor egon ditake alegeratu gabe. Larrazkenean aldiz, ikusten ditualarik urxoak, haize ez-tigno batek, zeru alderat eremaiten, ni segurik amentsetan hasten naiz. Neguan berritz, zoin den gocho supaster xokoan paderatara bat gatzina aintzinean, kanpoa bezti delarik bere elhurrezko jauntziaz. Zinez toki hau parabisu bat da eta aise laket ditake hemen, zu bezelako aingeru bat.
- M.C. : Milesker anderea.
- May : Bon barkatuko nauzue otoi amorosgnoak, hemen ausaturik. Zer nahi duzu Michel ezagutzen dut ttipi ttipitik eta hunentzat beti ausart gira.
- Mic : Badut nik ere zombait itzuli eginik zuen etxerat.
- May : Orroit hiza haur zarra hinzelarik doi doia xutik abiatua eta heldu hintzen borta aintzinerat : Mayena, oñoña otoi. Erradazut parti nain bederen. Barka nezazue otoi eta egun horiek arte beraz.
- Mic eta M.C. : Bai ikus arte.
- M.C. : Nungo procheta duzue hori ?
- Mic : Hori auzokoa, bihar aratseko herri guziak badakike gure berri. Hasi-ko da ikusiari: Bordaberriko Michel ere ezkontzen omen duxu, atzo mintzatiak ditchit. Neska bat pollita badixi, haatik ez dakixut egin behar ote dutenez, frango kolore hitsak harrapatu dazkoxut. Ba funtsian moda duxu orai, eta holako...
- M.C. : Zer auzoak dituzuen !
- Mic : Ba zinez eta bihar ikusiko ez dutenek jakinen dute igandean, meza-tik ateratu orduko, menajoko gauzak erosten tuzten botigan, kafe on bat aintzinean dutelarik. Eta segur segura denek kominiatua dutela oren erdi bat lehen. Gauza guzien jorratzeko bezala, indarrak behar baitira hartu, jenden jorratzeko ere.
- M.C. : Ez nuen uste hemengo emazteak holakoak zirela.
- Mic : Ba ba maleruski, ta gero gure apez gaixo hori ariko da aldare aintzinetik oihuka, gizon guti delakotz mahain saindurat hurbiltzen. Heietan ere bada orotarik bainan gehientsiak etxerat juaiten dira mus bat egin ondoan eta bizpahiru astokeria elgarri kondatu eta. Bainan emazte horiek! Mahain burukoak ikusi badu mutiko bat neska batekin solasean, haindiko muturrerat heldu orduko, esposatua da jadanik.
- M.C. : Laster dira harat humatak.
- Mic : Segur hala da horiekin.
- M.C. : Zer nahi duzu, bakotxak bere gostu.
- Mic : Ba, zer egin ditake bertzela?... Eta...zertan geldituak ginten ?
- M.C. : Ori, erran dautzut utz nindezazun eta maite ninduzula eman duzu ar-
rapostu.

- Mic : Maite zaitut ba bainan zendako etxea utz gurea izanki eta ?
- M.C. : Michel, zoin duzu maiteago : Etxea ala ni ?
- Mic : Biak.
- M.C. : Nahi duzia Michel hiri batean bizi zortzi oren lan eginez egunean, larunbatetan eta igandetan zinemarat juanez edo berdin plaia bazterrerat ala zoko huntan egon lanaren esklabo, dirurik eta deskantsurik gabe ? (kexatuz) Nik ere nahi dut bertze lagunak bezala izan, neure otoa ukan, xuritzeko mekanika bat, telebixta bat ere. Igandetan neure senharrarekin goxoki egon. Konprenditzen nuzu Michel ?
- Mic : (ixtant bat ixil egon ondoan) Karkulak eginen ditut bainan ez dakit.
- M.C. : Michel, ni ez naiz hemengo egina, ez naiteke hemen bizi, orduan egi zu zure kontua, egungo neure erranak ontsa pizatzuz.
(Harabots bat aditzen da).
- M.C. : Xuu - norbait bada.
(Albert eta Domingo pasatzen dira amoros horier ohartu ere gabe, beren solasez arras hartuak)
- Alb : Ez dakiat denbora hunek atxikiko duenez, zola hura (erakutsiz) berritz ere beltzatzen ari duk.
- Dom : Egun segurik aro huna ukan die alhatzeko, iraun baleza...
- Alb : Ez dakiat, nik ere herenegun zazpi pinta usaian baino gutiago nintian
- Dom : Banian nik ere holako. (Badoatzi)
- M.C. : Nor dira hoiek ?
- Mic : Bi auzo, gibleko hori, otxeko atso haren semea da, karlos bat.
- M.C. : Badu itxura guzia. Orai etxerat buruz ere abiatu behar dut, tenorea hor harat doa. Ez du balio jin zaiten segitzerat. Horxetako heinka hortarik berehala etxen naiz. Aski duzu gaur goizik oherat joaitea eta ahalaz lo egitea.
- Mic : Noiz ikusiko zaitut berritz ?
- M.C. : Zato bihar ilhuntsuean hunarat nahi baduzu. Ixtant bat egonen gira elgarrekin, gogoeta zonbaiten erabiltzeko.
- Mic : Zure erranekin badut nun zer pentsa. Agian zure gogoak kanbiatuko da biharko.
- M.C. : Ez Michel ez, neure karkula guziak eginak ditut, orai zure aldi horien egitea. Bihar arte beraz ene maitea eta ez zaitela otoi kexa (musu emaiten dio).
- Mic : Orroitz zaiten nitaz zonbat penarekin behar dutan arats hau pasatu.
- M.C. : Kuraia on Michel, ikusiko duzu ez zaizula dolutuko eta berritz ere jakin zazu maite zaitudala (ateratzen da azken musu bat emanez)
- Mic (bakarrik) Ez dolutuko ez, zonbat aise den horren erraitea. Ni hirirat? Hirirat ni ? (kexu) Ez, sekulan! Ez banu hori ezagutu bederen, ez nuen gaur hoinbertze sofrituko. Iduri urustasunerat heldua eta horra zer zautan heldu bizkarraren gainerat. Bordaberria utz ? ene ait-ama gaixoak ere ba ? nundik egiten ahalko dut hori ? Badakit ez naiz beti horiekin akort bainan maite ditut halere. (Juare batzu aditzen dira, ondotik xixtu zonbait) Michel agertzen da oiha bazterrerat eta Albert hasten zaio oihuka.
- Alb : Hi igandearekin etxen ?
- Mic : Ba, ikusten dukan bezala.
- Alb : Ago ixtant bat, ardi hok itzul eta heldu nuk.
- Mic : (bere buruari) hire teolosia beharretan nindian to...
- Alb : (agertuz) Adio, Mixel, zer diok gaizoa ?
- Mic : Ba, gauza guti ba, zer nahi duk erran dezadan ?
- Alb : Nik dakita, jez harritzen nuk hi hola ikusteak igandearekin, ez ahal dauk emazte gaiak hitza jan ?
- Mic : Ezn ez, frango apetitu ttipia dik ere. Eta hi zertan haiz ?
- Alb : Ba ene afera beti berdin duk ba, beti kabala horien ondotik trostan. Oxtian aratsaldeko askaria Etcheberrian egina diat Domingorekin buruz buru. To, zerbait baduk atso horren klaska, beharriak ere tuta-tuak nintian. Badiat beldurra gure behi zaharrek balute haren juareta ta mihia, laster gazte litazkeela.
- Mic : Bazukek ba.
- Alb : Bon, behardiat ba ardi horier jarraiki, bertzenez juanen zaztak Bai-guran harat. Ikus artio beraz Mixel.

Mic : Ba adio Albert.

(Burua hazkatuz) Gaizoa kuia lilia, hire enbeia nion ba orai (jartzen da) Zerbaitetako Karlos gelditua haiz ba. (Braul xutitzen da ta izerdia xukatzen). Orai zer burutarik lotu behar dut. Ah! emaztiak, zendako gure Jainkoak kreatu zituen ere ? gure nardatzeko hain segur. Ba funtsian ez bazen egun batez emazterik izan, ez nindian hemen izanen. (Koleran) Zer egin behar dut beraz, zer ?

Oihala.

Hirugarren gertaldia

Joka-lékua : berritz ere sukaldea.

Michel - Pettan - Albert - Kattalin.

Michel sartzen da kotxea eskuan, Pettan ari da kafearen edaten bakarrik.

Mic : Errazu aita, zeri lotu behar dugu orai ?

Pet : Ba nik dakita, lursagarren lekuaren itzultzeko ere aro likek ba orai.

Mic : Ez du ez harek presarik oraino.

Pet : Ez segura, noiz egingo dituk ala helduden urtean, ez duk errana hola denbora ukanen dugula beti. Hobe ginikek duguno baliatzea.

Mic : Ba eta nün egingo dituzu undarian ?

Pet : Lur berri hartan ba, ez dituk han baino hobekiago nihun izanen. Orai artean ere ontsa ateratu gituk handik.

Mic : Zer kaskoa duzuna, ez zira gaur goititik kanbiatuko ez. Ez bailitake hobeki, etxe gibealeko landa zola hortan egitea.

Pet : Hor orga bat arto ederra heldu duk eta utzak hori hola hola.

Mic : Ba, ariko gira hor denbora galtzen, lerro motx horiekin. Batean ereiten, gero pasatzen, ondostatzen. Undarreko erdiak guhaurek lehertzen ditugu. Nik uste horgo artoaren gatik izanen gira ba.

Pet : Bixtant duk, hargatik ganeer zaharreko artuen erdiak handik zitian.

Mic : Zaude ixilik hortik, irri egin arazi gabe, jaz ere hango artuak aise bildu dituzu ba. Ala xuiquin kotsia bazelakoan.

Pet : So egizak, lur berrian eginen dituk eta fini, lehen ere ontsa jintuk han.

Mic : Lehen ba, segur hitz hori ikasi zinuten noizbait. Lehen hau egin, lehen hura egin, lehen hau, lehen hura. Zer egin duzue lehen ? Tirrit arauz! Zuhauk ohartu ere gabe, denen petzero jarri zarezte eta orai guk behar ditugu denak patitu.

Pet : Zer derasak bertzenez, badakika hihaurek ?

Mic : Ba aita, ba, zuen ustez zernahi egin duzue lehen. Zuen hil harriak dituzue prestatu eta orai gu gira harrapatuak.

Pet : Zer erran nahi duk ote ?

Mic : Erran nahi dut asea naizela bizi molde huntaz, asea lepo zintzurerraino, denen esklabo bizitzeaz : gobernuaren, herriaren eta azkenik etxearen, asea badakizu?

Pet : Ah! gaizua, gure adina artean, zerbaiten ikusteko denbora baduk oraino. Nik bezenbat ikusi ondoan, mintzatzen ahalko haiz. Anartean, guastatu bat ederra hingatzen haizela jakin zak.

Mic : Guastatia ba, zuen hutsak direla medio dugu guk sofritzen.

Pet : Nolaz hori ?

(Bortan joiten dute, Pettan doa aterat, Michel jarririk da pentsaketan!) (Aditazen dira atean)

Alb : Egun on Pettan.

Pet : Bai hiri ere parte on, haugi sar adi.

Alb : To, adio Michel, jes zuek tenore huntan barnean ?

Pet : Ba, nahi baduk egia entzun, mokoka ari gintian aita semiak.

Alb : Ah! bon behar da hori ere artetan.

Pet : Nik lur sagarrak lur berrian egin nahi ta hunek etxe gibelean aldiz. Ta orai ari zatak dena miseria kondatzen. Badiat beldurra biziki mallerus den naski.

- Alb : Gaizo Mizel, zer duk ?
- Mic : Etsitua nuk bizitze huntaz, bizirik ehortzi nahi gitie denek. Zahar horiek zernahi egin die lehen. Orain dituk lan horiek ageri. Lehen ohoria eta ontasuna zitian konda bakarrik. Gero handikeria eta jendeen errana.
- Pet : (ateratuz) Bizkarra zabal baitut beharrik.
- Mic : Ontasuna zuena, norbait zion gero!! holako eta halako etxeke semiak ere ba. Horiek deitzen zition "delako" gizonak. Holako batzu ditiuk orain, denetan buruzagi eta denek baratzen gaitie. Urde zikinak !
- Alb : Hortan hire alde nuk. Denak berdina dituk, zaku berria sartu behar. Zer nahi hitz-eman eta deus ez egin. Hoinbertze gazte badoatzik urte guzietan gure herrietarik eta uste duk nehor grifiatzen den ? Karguan sartu arte, denak belhauniko jartzen zauzkie aintzinean eta sartu ondoren ez die agurrik ere egin nahi. Ah! gaixo mundua, erdia bizi duk bertze erdiaren goustuz.
- Mic : Ontsa lukek denak hori ohart balizte ni bezala bainan hamarretarik zortziek itsu eta elkar dituk. Gure eskual herri guzia saltzen ari die, herrietako buruzagiek eta heien mutilek. Nunbait heldu direnzentzat ez duk deus soberakinik, herritarrak hargatik libro dituk antzara ferratzerat.
- Alb : Malerus duk ba zinez, gure herri guziak husten ari dituk. Nun da lehenagoko gazteria ederra, nun ? Nunbait bizi duk mundu zabalean baina; ardura nigarra begian bainan zer egin dezake ? Zertarat jinen da ? Guziak airatu dituk ezin biziz eta gelditu direnak hemen dituk ezin hilez.
- Pet : (sartzen, irri malzur batekin) Biziko zirezte ba hil artino (Micheli buruz) Errak ardi horiek eremaiten ditiat !
- Mic : Ba, nahi badituzu.
- Pet : (ateratzen da)
- Mic : Egia handia ezin hilez. Laborari ttipi guziak errekarat abian gaituk, Juan direnak azkenian Juanak dituk eta hain segur gu bezen untsa.
- Alb : Juanak izana gatik, hek ere aditzen die jaun handi horien dela, bozka eguna jiten delarik. Orduan ba, badie guzien beharra, gure hobeki zapatzeko (ixtant labor bat gelditurik) Norbaitek zerbaite traba duelarik bere lurretan edo etxean, edozoin eneguz hartua delarik, jaun horiek litakek haren amultsuki laguntzea, ...xutitzea.
- Mic : Ba harrapatu duk : gainerat ba jatzi egiten dakoie eta ez batek, bainan denek bat bertziaren ondotik. Ardi bat auzoko pentzerat espakatzten delarik, artalde guziak segitzen duen bezala, halaber delako jaun horiek egiten die ez nahiz beren mailetik baztertu. Ah! gaixo Frantzia.!
- Alb : Ah! Frantzia duka Frantzia! eta Frantsesak ?
(Bortan joiten dute)
- Mic : To norbait badiuk.
- Alb : Bon, baniok ba.
- Mic : Ez gero, ago goustuan. Aintzina!
(Manez bolanjera sartzen da ogi bat beso azpian eta xito pazka zaku-ta batekin.)
- Man : Adios putikoak, ontsa zireztea ?
- Alb : Ez hi baizen ez.
- Man : (Micheli) Errak, usaian bezala ?
- Mic : Ba, hain segur ba.
- Man : (Alberi) Zer diok gero, hik ere hemengo aldi ?
- Alb : Ezin uka.
- Man : (Micheli) Ez duka lanik humentzat, hez dadien poxibat; ba funtsian enbeya ez baitu animalia.
- Alb : Ez haiz hi ere beti, enbeyarekin lanean ari ez.
- Man : Baniok ba, adio zien beraz eta bertze aldi arte.
- Mic et Alb : Ba bertze aldi artino.
- Mic : Hori biziko duk ba.
- Alb : Ba, ba, ez duk ogia ere merkatuz joan.
- Mic : Gu gaituk hemen buruz beheiti abian, gu laborari hok. Denak kontra ditiuk, kontseiluko, deputatu, minixtro eta barrakeria guziak, beren lege eta pozoinkeriekin.

- Alb : Fitexko lurren elgarretaratzea ere legezkoa izanen omen duk.
- Mic : To, ez ginian bertze beharragorik Bordaberriko lur guziak hementxe hantseka barreatuak baitira denak.
- Alb : Orduan hire guziak galdu behar dituk eta bertzek emanarekin egon beharko duk.
- Mic : Bah! ago ixtant bat ni ere hemen nuk.
- Alb : Alta ikusiko duk.
- Mic : Zer emanen daut auzo ustel horrek, 'jelosian bizi baita; berak nahi ez duen harria ene lurraren kontra ? Funtsian aski tzarra eta uste-la duk holako lan baten egiteko jaun handi horiek etorriko direlarik, krabata soinean eta orga bat paper beso azpian, zikin horrek berdin bildotx bat emanen diotek edo bazkari bat pagatuko.
- Alb : Ba eta hik ixil ixila egon beharko ene gisa.
- Mic : Hala duk hori ere (errabian) Bainan noiz altxatuko gira horien hein-nerat, noiz ? Noiz ukanen dugu aski indar eta bertute gure itzulian justizia eta zuzentasunaren ezartzeko ? Ez gaituk hola egoiten ahal ez, behar diuk jazartu.
- Alb : Aise duk errana, elgar entzun bagintza herrian berean uros bizitzen ahal gintazkek denak. So egizak bertze erresumeri. Laborariak elgarre-taratuz zer lan ederrak egiten duzten. Erran behar holako zerbait auzo hoieri.
- Mic : Egia duk, zozo buru handi horiek ez die berena baizik ikusten. Ber-tzen herran eta jelosian bizi dituk. Zer egin behar dugu beraz, zer? ala leher egin ? Ez, lehen denak utziko ditiat, denak eta fuera fu-tro partituko. Ez duk hau bizi bat : Etxeko atetik mugitu orduko, auzoa berina gibelean goait duk norat abian haizen. Rusian baino pitsago gaituk herrian berian.
- Alb : Nik ere frangotan gogoan pasatu diat, denak utzirik partitzea bainan orai arte etxearen amodioak eman datak aski kuraila, hemen gelditzeko.
- Mic : Nik ez diat to. Emazte gaiak ere ez datak laborantzarat jin nahi. Hargatik lotsa nuk aitameri erraiteko, alta behar diat ba erran, de-libera hartua diat orai.
- Alb : Ez zakala holakorik egin gero, zer egingen dute berek ?
- Mic : So egizak, ez diat hautarik.
(Pettan sartzen da eta arno xorta bat hartzen) (Alberi buruz). Zertan zirezte, bizpahiru egun huntan frango muturian ginian mutiko hau (ir-riz) Hirekin omoreatu duk beharba.
- Mic : (serios) Aita !
- Pet : Zer duk ?
- Mic : Zerbait handi behar dautzut-erran.
- Alb : Ni baniok (Mixeli) Errak bihar aratsaldean ez haiz jiten ahal, arto bihikazia diuk.
- Mic : Ba jinen nuk ba.
- Alb : Barda hamar orenetan ukan diuk komisioneak, bihitzailea bihar heldu zela. Ez diat oraino nehor galdegini. Jiten ahalko haiz ordian ?
- Mic : Ba bazkal eta jinen nuk.
- Alb : Bon ontsa duk bihar artino ordian. Egun horiek arte Pettan.
- Pet : Ba, adio gaizoa.
- Mic : Aita zerbait badautzut erraiteko.
- Pet : Ah !, zer ote ?
- Mic : Hiru egun huntan, mintzatzeko beldurrarekin nintzan ixilik, bainan egun ez dezaket gehiago atxik.
- Pet : Mintza hadi beraz.
- Mic : Ez da aise bainan (gelditzen da)
- Banoa aita
- Pet : Zer erran duk ?
- Mic : Banoala, etxea uzten dutala.
- Pet : Eri haiz Mixel ?
- Mic : Ez aita, arras untsa naiz, gogoa dut bakarrik ilhun ta bihotza minbera Jadanik kuraila ttipia nuen laborantzant segitzeko eta gainerat ez dut hautarik : Marie-Clairekin ezkontzekotz etxea utzi behar dut ez baitu hunat etorri nahi.
- Pet : Zer hau hogoi urteko neska batek hola enganatu ?
- Mic : Konprendi nezazu aita, maite dut. (Pettan ateratzen da; Michelek bu-lharren bete hats hartzen du eta bet betan arindutik jartzen. Pettan berriz heldu da, Kattalinekin)

- Kat : (xoxotua bezala) Zeer... zeer dela ?
- Mic : Ama, ez nigarrik egin otoi... juan behar dut. (Kattalin erortzen da kadera gainerat eta nigarrez hasten, Pettan juaiten zaio kontsola-tzerat. Bet betan xutitzen da Kattalin semearen begitarteari parrez par ezartzen berea eta errabia batean botatzen dako)
- Kat : Parti beraz eta lagunik ez aira!
(Micheli nigarra espakatzen zako eta esku bat bihotzaren gainean ezarriz) :
- Mic : Ama, ez zaitela asalda, bazinaki zer opila dutan bihotzean.
- Kat : (orroaz) Jan zak askaiteko.
(Michel ateratzen da, begiak xukatuz)
- Pet : (emaztea besotik hartuz) Ezti zaite otoi, gu bezenbat sofritzen du.
- Kat : Ezti duzia ezti, bederatzi hilabete sabelean kareatu ondoan, hogoi eta bost urtez artatu ondoan, horra zer erremesiamendua dutan. (Be-soak alxatuz) Zeruko ama, urrikal zaite nitaz.
- Pet : Zertan gira orai ?
- Kat : Juan gogo bada, bego joaiterat, ez dadila guretzat egon. Ez dut ge-roan aditu nahi, gure gatik dela maluros.
- Pet : Horra gure bizia : lau haur hazi ditugu : biga hanxet dira, amerika zokoan, alaba aldiz serora eta hau gure esperantza bakarra, kontso-lamendu bakarra, hau juaiten zaukula ? Hau merezi baiginuen zuk eta nik ? Orai zer eginen dugu ?
- Kat : Denak salkitzu, gureaz orroitz gaiten orai. Orai artean bertzentzat bizi izan gira, guhauren buruak ahanztiz. Nehor ez zauku urrikaldu. Azken urte hok bederen pasa ditzagun biek goxotasunean eta bakean (ateratzen da).
- Pet : (Bakarrik) Nork asmatuko zuen hori, nork ? Hori ere guretzat baitzen, guretzat ? Hail beraz seme, hail, kanpoko saldak etxeakoak baino usain hobegoa dik. Ondotik duk gostua senditzen. Entseatuko nuk bar-katzerat, irakur zak artetan ebanjelioan den haur prodigoaren pasa-ia eta jakin zak aita zahar hunek erranik bertzetan ere astean or-tzirale bat badela.

Oihala.

Laugarren gertaldia

Domingo - Extebe - Josep - Albert - Ostalera - Pettan -
Michel - Marie-Claire

- Joka-lekua : Ostatu sala bat, lau gazte, heietarik bat Domingo, musean ari keinu handi batzu elgarri egiten dutela eta harabotsa are ge-hiago. Ageri ez direnak bertze biga kantuz ari dira, biak zoin ma-kurrango, oi arnoa kantatzen dutela. Mantxa bururatzean Domingo has-ten da ttantto kondatzen :
- Dom : Hogoi eta hamekak hirü, hik handitik biga bost, bien pariak, bi zazpi eta ene pariak zortzi.
- Ext : Nundik zortzi ?
- Dom : Zer ordian (tarrapatan berritz konduak emaiten dituela)
- Jos : (Exteberen laguna) Nun ikusi duk bien pariak bi eta ene pariak.
- Dom : Zortzi egin tiuk ta fini, ala galtzen dukalakoa, turnada baten gai-nean den gizona ez duk gora.
- Jos : Are gutiago ttantto baten gainean dena, hire pareen bietan kondatzeko ala bi xango txar bahintilakoan ? ... Bi asto ukanez, mereen egiten ez hintzan haubertze penatuko. Denetan berdin ustela haiz hi.
- Dom : (xutituz) Zer duk, baduka arrangurarik ? Errak gero. Ez baduk turna-da baten saririk, nihaurek pagatuko diat. Hala bederen bakea emanen duk. (Pagatzen du eta abiatzen, idor idorra erranez) Adio zien ! (Ordu berean Albert sartzen da).
- Alb : Aratsalde on jaunak.
- Denek : Bai hiri ere.
- Alb : (Domingori) Norat ari haiz Domingo, ontsa presatua iduri duk, haugi zerbait pagatuko duk.
- Jos : Ba egitekotz, egun eginen dik larguan duk biziki.

Dom : Hire gatik, norbaitek egin behar dik.

Alb : Zer duzue, ala uliak kexu ?

Jos : (Alberi) Erranen dauk ba berak.
(Hiruak xutitzen dira)

Dom : (Alberi) Musean hasi gituk ta galtzen baizuten oharra xerkatu da-taie sobera ttantto tiratzen nuela.

Jos : Ago ixilik otoi, ez duk orai ilhar sasoina eta Alberrek ere ez di-tik hireak aise disegitzen. Bon emazue hola hola. (Bertze biek)
Adio zien.

Alb : Ba adios.

Ost : Zerbait gustu duzie ?

Dom : Zer hartuko duk hik ?

Alb : Arno xorta bat orai.

Dom : Ekarrak beraz pinterdi bat (segidan pagatzen du).

Alb : Zer diok to ?

Dom : Ba zer nahi duk erran dezatan, auzoko berri hori diuk handiena. Ja-kina duka ?

Alb : Zerbaitxka jakin diat ba.

Dom : Michel joaiten zela bahakien ?

Alb : Ba, banakian ba.

Dom : Etxea saltzen omen die, notariaren ikusten izana duk Pettan jadanik

Alb : Bah! espres ari haiz ?

Dom : Ez, ez hala duk, Etxe-zaharria ere galdegina duela erran die zon-baitek.

Alb : Etxe-zaharria! Norena da hori ?

Dom : Mendialdeko Pierrarena arauz, frango etxe ona omen duk oraino, bul-tta huntan hutsa zian bainan estatuan izan behar dik.

Alb : Zee ? Hortaratu baita Bordaberri ?

Dom : Ba, ba gaizoa.

Alb : To etxe hori erosten duenak ez dik guti irri eginen. Ez duk handia bainan baduka bertze bat hori bezen aiserik ibiltzeko? Beti hor la-nak gain gainetik eginak dituk. Jakin zak lur horiek ere zonbait onkailu badutela ukanik.

Dom : Ba behardiat nik ere mugitu, ez diat ahal badut bertzeri utziko. Etxe gibeledko lur horiek guziak xarmanki ditiat hor onddo onddoan. Aspaldian begietan nintian to. Haatik ez nian errenen ez holako oka-sionea ukanen nuela.

Alb : Gaizo Pettan, harritzen nuk hartaz holako lanaren egiteko.

Dom : Zer nahi duk egin zezan bertzerik.

Alb : Dudarik gabe arrunt etsitu duk. Berak ere juan araziko zian hori, hori denarekin bertzenez ere. Badik zonbait lan eginik gizon horrek etxe hortan. Gaizo gizona, nahi duenak nahi duena erranen dik bai-nan ez zian ez hori merezi.

Dom : Badakikek ba berak zer ari den.

Alb : Ez dakiat, ez nuk segur.

Dom : Etxe-zaharrerat juanez, Mendialdean egun zonbait sartuko dik ta ber-din gustuan biziko duk ba.

Alb : Errak uste dukala, hi eta ni egin gintazket ba, bainan ez hura ez.

Dom : (Leihoan so egiten) Ez tea hura hanxetan ?

Alb : Kasu ba, haren urhats airea duk ba. Ez ahal duk burxoratu undarra. Ez diat behin ere hori ikusi plazan aste egunaz.

Dom : Ni baniok. Ez nik jadanik sobera maite eta hobe diat juanik. Adio gaizoa !

Alb : Bai izan hadi!

(Bakarrik) Gaizo Domingo, bahaki zonbat astoa hizan. Etxean ez bai-tuk aski lurrik, auzorat joan gabe. Aspaldian begitan hintuela. Ho-be huke to ene gisa, emazte baten biltzea.

Ost : (Alberi) Bakarrik utzi hutea ?

Alb : Hantxet heldu zaut bertze bat : Bordaberriko Pettan.

Ost : To, badik bulta bat ez dela hemen izana. (Pettan sartzen da kopeta ilhun batekin)

Pet : Aratsalde on jaunak.

(Bertze biek) Bai zuri ere parte on.

Pet : Hik ere hemengo aldi Albert ?

- Alb : Pasatzean drago baten edaten gelditua nintzan. Zer hartuko duzu ?
Pet : Hi arnotik ari haiz, ekarazu pinta erdi bat (Alberrek dirua kentzen du sakelatik) Bakea emak gero hordik, nik pagatzen diat hau. Zer diok gero ?
- Alb : Nik gauza guti eta zuk ?
Pet : Nik ainitz berri ta xahar igitzen ditiat egun hotan. Jakina hien etxea saltzen nuela ? Notariaren eskuetan ezarria diat eta jadanik auzoko atso sorjes hori izana zakok ikusten. Urde zikina, horrek ere ene gisa utziko ditik ba denak egun batez.
- Alb : Zuk Bordaberria saldu ?
Pet : Ba gaizua ba, harritzen haiz menturaz nik hori eginik bainan semeak erran dautalarik juaiten zela, etsidura sartu zatak bihotzean barna eta buru kolpe batez deliberatu diot. Heldu den Jondoni Martinez sartzen gaituk Etxe-zaharrian. Nahi nioan etxea begiratu bainan notariak erran zatak dena osoan salduz, hobekiago aterako nintzela.
- Alb : Harritzen naiz zutaz, harritzen..
Pet : Zer nahi duk, ez gaituk orai hogoi urtetan eta iduritzen zatak pausu poxi batek ere ez duela kalterik eginen.
- Alb : Hortan arrazoina duzu. Eta ? Gazte hek zertan dituzu ?
Pet : Egun kurri juan beharrak zitian. Michelek ere lekua egina omen dik Bordelen kamiun gidari gisa. Ikusiko dik bertzetan nola den bizia. Ez ditik beti hemengo memento goxoak pasatuko ez hoin segur : lo aldia noizbait artino, merkatu bat ere ez zion huts egiten, igande guzietz kurri, astelehenetan ezin jeiki; aita zahar hau beti uztarrian.
- Alb : Nik betidanik laguna nuen Michel. Erraiten nakon nik ere guastatu bat zela. Bertze laguneri ere behatzen zen ordia : hirian zortzi oren lan egunean, bost egun astean, eta hilabete bat bakantza. Orain Marie-Clairek bildu du indarra.
- Pet : Lehen aldikotz izan zelarik Marie-Claire, ohartu nindian ez zela ar- ras gure arteko xoria. Ez ninduian segur trompatu. (Bet betan Michel sartzen da eta aita kausitzean urhats bat gibelerat egiten du. Marie-Claire- ere berekin du)
- Pet : Zaizte, zaizte, ez ziutztete nehorrek janen.
Mic : Adio Albert.
M.C. : (Halako bihotz min batekin eskua tinkatuz bieri) Aratsalde on, juan dea ?
- Pet : Ez zuek bezen ontsa ez, inahala eginik ere.
Ost : Zerbait plazer duzue jaun andereak ?
M.C. : Nik kafe bat.
Ost : Ongi da.
Mic : Nik ere bertze bat.
Ost : Ekartzen dauzuet segidan.
Pet : Jadanik etxerat heldu ?
Mic : Etxerat... edo ... ikusiko.
Ost : Huna zuen kafeak.
Biek : Milesker jauna.
Pet : Etxerateko alderat ere abiatu beharko diuk naski, Pettanentzat baitira hain segur lanak.
- Mic : Pikoan sasoina dea aita ?
Pet : Ez ez bainan sasoin kontra ere on egiten die frangotan.
Mic : Ez nakien.
Pet : Hik zer egiten duk Albert ?
Alb : Heldu naiz zurekin, elgarrekin juanen gira.
Pet : (M.C. ta Micheli) Bon emazue hola hola eta sarri arte.
Ost : Agur jaunak ta milesker.
Alb : (Duda tzar batekin) Izan zizte.
Mic M.C. : Agur.
M.C. : Aitak irri guti zuen.
Mic : Ba entseatu bederen da egitea, etxen ez du hoinbertze ere egiten.
M.C. : Ez du oraino konprenitzen ez girela Bordaberrian bizitzen ahal.
Mic : Ez du egun goitiik eginen ezn sobera gogortua du ba kaskoa eta ez zako gurutuz joanen.

- M.C.: Erdaraz erraiten den bezala : un peu vieux jeu !
- Mic : Ez zaitu entzuten ori !
- M.C.: Ez egia duzu, holako zerbait erran behar ezkerreko beharrirat.
- Mic : Eskuinekoan ere berdin litake ba. Funtsian ez da segur bakarra, xahar guziak berdinak dira. Beren bizi guzia pasatu dute larderia baten pean : hau egiten badut edo hori, holakoak edo halakoak zer erranen dik! Ez nuk zakurrerentzat ere on izanen. Eta uste dute halere oraiko mendeari jarraikitzen direla.
- M.C.: Nitaz solas ukan duziia geroztik ?
- Mic : Ez ez, ez zaituzte aipatu ere.
- M.C.: Amak ere ez ?
- Mic : Pentsemazu, aita baino errabianago da hura.
- M.C.: Gaixoak pena emaiten dautate, eta bizkitartean nik eginak ditut hain malururos. Gu ere aise mintzo gira horietaz : lehengoak hau, lehengoak hura, bainan zer gira guhaur ? Ukan duzia egundaino hori gogoan ?
- Mic : Ez maitea ez, ez dut asmatu ere.
- M.C.: Ni ari izan naiz pentsaketan eta ohartu ainitzez obendun girela xahar gazten arteko guduka hortan bai eta ere hiriko eta kampaña-ko bizi moldearen ikusteko maneran. Ikusi ditut ortziraleak denetan (kexatuz) aberatsak eta pobreak, urosak eta trixteak. Eta gu zoin lerrotan gira orai ? (Errabian) Ez dakit zer egin, zainak nagusi-tzen ari zauzkit.
- Mic : Zer duzu bada, ez girea urosak gu ?
- M.C.: Zer ote gira ba gu, zer ? Iduri dugu zernahi bagirela, denak badaz-kigula, mundu guzia gure azpiko dugula Adam eta Eva Jainkoaren er-resumaz jabe ziren bezela. Ez dituguia gure buruak sobera urguluan sartuak. Gurea baizik ez konda, bertzeri ez behatu nahi, gure nahia bakarrik egin behar ?
- Mic : Zer dituzu gogoeta horiek ?
- M.C.: (Amentsetan bezala) Hala direnak Michel, haizeak gabiltzan ostu bat-zu gira, xori batzu. Zer gira gu...? Dena espantu ta haro eta un-darrian deus ez gira. Egun ba, bihar ez. Xaharrak gazten kontra, gazteak xaharren kontra eta undarrean denek elgarren beharra. Iduri luke alta bertzeren hutsek norberarenak estaltzen dituela.
- Mic : Zer lotu zautzu hola mintzatzeko ?
- M.C.: Orai artean kuraia handi bat banuen hirirat juaiteko eta partitzeko tenore huntan, ikarra bat jauzi zaut zainetan barna : barne ttipi batean estofatuak, kanpoko harrabotsez elkortuak, beldur batekin xoratuak bizi dira hor jende ainitz. Bulharren betetzeko aire sano poxibat dute; etxe bazterretako landareak eihartzen dire; airea, ura, janaria, denak pozoindatuak dirade... ezin biziz ... ezin hilez daude. Eta gainerat gogo izpirituak erituak dituzte : hoinbertze ebasle, mandil eta drogatu bada hirian, hoinbertze mutil trixte, ilheak espaldan beheiti, musika tresna bat bizkarrean, zigarreta ezpainean, erdia goserik, soinua eta haize hotza lagun, gau egunak pasatzen dituztenak. Zonbat neska gazte, betikotz galduak, karrika bazter batean beren gorphutza eskaintzen dutenak, diruaren ordain.
- Mic : Kasazkizu, otoi horiek guziak burutik.
- M.C.: (bere solasez hartua) Ez da aise Michel. Parabisu hau uzten dugula, h horier buruz jaaiteko ? (Bulharrak joz) ene faltaz, ene faltaz...
- Mic : Eritzen ari zira Marie-Claire.
- M.C.: Ez dakit, amentsetan ari naiz, ikusten dut bidexka andana bat eta boz bat aditzen dut erraiten duela: izan zaitezte on, lagunt eta maita xaharrak, lurra eta etxea, ikas ixilik eta umil egoiten, ukana-aren estimatzen, izan goxo eta ezti. (Haritua) Norbait so zaut gi-beletik, juan behar dut ihes (burua itzuliz) Bainan zoin bide hartu behar dut...???

Joka-lekua : usaiako sukaldea.

Kattalin - Piarreño - Pettan - M.Claire - Michel - Boza.

Kattalin zainak poxibat airean ari da bere lanetan, bere buruarekin diola.

Kat : Ah! Zer oren latza hogoi eta bost urte etxean egonik, semea partitzen ikustea. Zer pena hori aita eta ama batentzat. Etxean gostuan bizitzen ahal, goxoki eta halere nahiago bertzen peko jua. Ah! oraiko gazteak!... Kasko arin...

Pia : Baratze hortarat juaiten nun ?

Kat : Ez orai ez, gaineke horier esku ukaldi bat eman behar dik ba norbait, fitexko prest dituzket hain segur.

Kat : Pettan etxe ondo horietan dea ?

Pia : Ba, barrokian du.

Kat : Errakok jin dadien barnerat.

Pia : (ateratuz) Bon.

(Michelen harrabotsa aditzen da eta berehala agertzen da, balisa bat eskuan).

Kat : Prest zireztea ?

Mic : Ba ama ba.

Kat : Puska guziak bilduak, balisak pizu, bihotza arin. Ago ixtant bat, ottok emanen dautzue esku ukaldi bat kargatzeko.

Kat : Piarreño (ez arraposturik) Piarreño (berritz ere deus) Hô Piarreño!

Pia : Heldu nun.

Kat : Nun hintzan orai ?

Pia : Komoitatean.

Kat : Baitezpada orai hien harat jua behar, hea lagunduko dituzkanek hok puxka bat gauza horien jausten.

(Marie-Claire agertzen da, bi zaku eskuetan airo eta lerdan, arro-pa laburgno bat soinean, Piarreño gibeletik kareala kargatua. Marie-Claire begiz iretsi nahi duela. Uste gabeen treukatzen da eta erortzen)(Marie-Clairek laguntzen du xutitzen, Kattalin erasian hasten zakolarik)

Kat : Zer ari haiz bertzenek, ez hiza xutik ere egonen, debru triñte paket

M.C. : Minhartu duzia ?

Pia : Belhaunian kaska bat.
(M.C. perekatzen dako)

Pia : Ah! zer esku goxo.

Kat : Uzten ahal duxu ba, pasatuko zakoxu, ez dixi segur lehen aldia, beti lurrean duxu. Ez haizea zangoen gainean egoiten ahal. Alta aski luze dituk ba.

Pia : Treukatu nun!

Kat : Treukatu ba, ez duka aintzinerat so egiten ahal. Segur haitresna iza bahintzan, izanen hintzan trukesa.

(Michel ari da beti puska kareatzen ta Piarreño eta M.Claire ere ber riz hasiak dira)(Pettan sartzen da)

Pet : Prestatuxeak direa ?

Kat : Jautsixeak dituzte naski; bertze zango luze hori ere erori zauku ox-tian.

Pet : Ez ahal du lehen aldia.

Kat : Juaiten ahal zira zu ere laguntzerat.

Pet : (Erdi ahapetik) Merexi dutea ba ?

Kat : Egun bederen utzkitzu ixilik, jua diten bixtatik, bakeak ere zerbai balio du.

Mic : (M.Clairi) Denak hor dituguia ?

M.C. : Ustez segurik ba.

Kat : Jar zaizte.

Mic : Beharko dugu abiatu ere (jartzen dira)

Kat : Zer hartuko duxue partitzeko : kafe xorta on bat ala aperitifagno bat ?

M.C. : Nik segurik deus.

Kat : Harraxu zerbait.

- M.C. : Ez egiaz, ez dut deusen enbeyarik.
- Kat : Zuek zer nahi duzue ?
- Pet : Nik deus.
- Mic : Nik ere ez.
- Kat : Tanpis, etxeko probetxu; hik Piarreño ?
- Pia : Arno xorta bat berdin.
- Pet : Orai noiz jinen zarezte ?
- Mic : Egin ahala fite ba, itzuli bat bederen, poxi bat laketzen hasi ondoan.
- M.C. : Ez ziuztegu ahantziko gero.
- Mic : Bi hitz igorriko ditugu anartean, (Marie-Claire-i buruz) Hau frango trebe da izkiriartzen.
- Kat : Baliatuko zakok ba hire gatik hire gatu izkirioa ez duk irakurtzen ahal ere.
- Mic : Zer nahi duzu, ez da nere falta hola egin banauzue.
- Kat : Ez zian hire falta ez, eskolan puni egoiten hintzelarik, gaizki izkiriartzen huelakoan.
- Mic : Bahl aldi bat segurik, errientak atxik baininduen aratseko bederatzi orenak artino, urde kaskanta.
- Kat : Ez hukeen hoin segur ebatsia.
- M.C. : Holakoa baizinen zu ?
- Mic : Orai ezin uka.
- M.C. : Ba funtsean, oraiko hunen gaia.
- Mic : Abiatzen girea ?
- M.C. : Ni prest naiz. (Biak xutitzen dira) Orduan kuraia on bat desiratzen dautzuegu eta jinen gira egin ahala usu zuen ikusterat.
- Kat : Aski goiz apaila zirezte egun handi hari buruz ere.
- M.C. : Zaude trankil orroituko gira ba. (Piarreñori hurbilduz) Zuretake ere kabaliertsa bat pollita badugu jadanik begistatua. Bazinaki nolakoa den, berritz ere eror zintazke segidan.
- Pia : Hobe segurki eta aintzinetik milesker.
- Mic : (Aitari) Barkatzen dautazu ?
- Pet : Nahi diat bakean utz dezakan Bordaberria, zoazte bada, gerokoak gero.
- Kat : (Nigarra begian) Orai duguia oren latz hura ?
- M.C. : Zeren dako latza, zertako trixtatzen zira hola ? berdin gostuan bizitzen ahal zirezte hemen pausu poxi bat ere izanen duzue azkenean.
- Kat : Eginen dixiu zerbait orai artean bezala. Ez hain segur nahi duguna bainan ahal duguna.
- M.C. : Guk ere gauza bera dukegu bainan ezkontzari eta geroari buruz iduri hirian badela manera gehiago ogiaren irabazteko.
- Mic : Goazen orai.
- M.C. : Heldu naiz.
(Michelek musu emaiten dio amari erranez)
- Mic : Maite zaitut ama.(gero aitari erranez). Bordaberria uzten dut bainan ez aita amak, neurekin eremaiten ditut bihotzean. (gero osebari erranez) Egon zaite pixkor.
- M.C. : Gauza bera egiten du kuraie on erranez Pettan eta Kattalini eta ikus arte Piarreñori.
- Pet : Egizue pidaia, xantza on eta orroit hemen girela.
- Kat : Zoazte polliki.
- Pia : Ikus arte beraz.
(Michelek azken behako bat botatzen du sukaldeari, bokanesa eskuan hartzen eta juaiten dira. Pettan eta Kattalin ateratzen dira heien segitzerat. Piarreñok drago bat edaten du erranez)
- Pia : Zer nahi duk batto gutiago. (Pettan eta Kattalin sartzen dira eta Kattalin jarririk nigarrez hasten da).
- Pet : (Hurbilduz) Ixil zaite Kattalin orai ez du balio mando hilari olorik eman dezagun.
- Pia : Lanean hasi behar duguia ala ez du balio.
- Pet : Ardi hek kanbiazkik pattarerat to, azken ilhabete hotan bederen ontsa bazka ditzagun.
- Pia : Baniok.

Kat : Orai gureak egindu, gure esperantzak jua dira. Ez dakigu gehiago norentzat bizi behar dugun, guhaurrentzat hoin segur. Zer balio ukanen du orai gure biziak, gure lanek. Jan, edan, lo egin, lanean arizan; hola juaen zauzkigu azken urte hok, helburu izpirik gabe, Jainkoaren galdearen beha. Gure denbora guzia lanean arizan eta nahiz gure haurreri eman, guk ukan dugun baino izaite hobeago bat; horra azken saria.

Pet : Zer egin dezakegu bada, ez zen berdin egonen. Hobe dugu juanik ikustea ezen ondotik aditzea gure gatik zela ziriko piltzar gelditua. Bi eskolazaille mota bazituen : hiritar jaunxkila horiek eta bertze kasko bero horiek : ez duk hola jokatu behar, behar duk etxea handitu, lur berriak egin, kabala gehiago hazi, zorrak eginik ere behar duk lantzatu. Ez du hori hautatu, funtsean hobe. Bada horietarik aski diruaren azpian, beren bizi guzian egin ziloen tapatzen ari direnak.

Kat : Uste duzu egin duen hautua hobeagoa dela ?

Pet : Hobeagoa ez dakit, biak ere berdintsu baitira. Bertze gisan etxen bederen ukanen baiginuen.

Kat : Zonbat orenak dira ?

Pet : Bortzak pasatzen, ez zinuena egun mezarat jua behar ?

Kat : Ba, hortakotz dautzut ba galdegiten.

Pet : Zonbat orenetan da ?

Kat : Bortzak eta erdietan.

Pet : Oizu, ernatzen ahal zira, tenoreko arribatzekotz.

Kat : Ba banoa aldatzerat.

Pet : (xutitzen da eta jestu batez bazterretarat so egiten erranez) Ah! Eskual herriko gazteak, zonbat ez zirezte jua herritik, etxen ez zelakotz zuen lekurik; batzu hirirat, bertzeak Ameriketarat. Utzi ditutzue zuen aita eta amak, nigarrez frangotan, bainan zer egingen zen, behar zen nolazpeit bizi. Ene semeak hor zuen etxea, utziak nazkon denak, ene kopetako izerdiaz ardietsi guziak emanak nazkon. Hor ginen haren ama eta haren aita, prest haren laguntzeko eta horra oxtian juana zaukula. (Burua inharrosiz) Oraiko gazteak! Eta futxo denak berdinak, denak "mentsaineko" uri berak xixtatuak.

Kat : (agertuz igandez beñti, torxa bat eskuetan) Torxa bat ezartzen dut Ama Birjinari lagunt ditzan gazte hek.

Pet : Erosten ahal duzu bertze bat ere, guretzat ezartzeko.

Kat : Ongi da, bon banoa.

Pet : Ba tenorea duzu.

(Pettan jartzen da, kopeta ilhun du, burua bi eskuen artean, argiak ilhuntsen dira bet betan, ortzia ozen da. Nunbaitik boz lodi bat aditzen da, idor eta kartsu.

Boz : Bordaberri. Bordaberri...

Pet : (xutituz harritua) Zer da ?

Boz : Bordaberri, zer egin duk, jar hadi eta adi nezak. (Pettan jartzen da) Bordaberriko Pettan, zonbat urte du orai neure teilatu azpian bizi haizela, neure lurrek eman uztarrekin jaten eta edaten dukala; so egizak gibelerat. Azken egun hotan bederen so egizak hire etxaldeari eta egin bi pentsaketa. Ez nian uste hoin ahula hinzela. Hire semea kaprixa batean partitu zauk etxetik eta ez duk konprenditu. Buru ukaldi batean saldu nauk. Ah! Judas trixtea.

Pet : (xutituz, erdia xoratua) Nor da Judas ?

Boz : Hi Bordaberri, hi haiz Judas, hik saldu nauk : goiz edo berant hire semeak itzuli nahiko dik. Nun ukanen duk horrentzat egina huen ohan-tzea ? Nun ? Semea jua zerauk ez baizuen hemen kausitzen ez anaitasunik, ez zuzentasunik. Haren amentsa zian goxoki bizitzea, denekilan bakean, adixkidantzian, justizian eta amodioan. Horiek izan bazituen Bordaberriko itzulian, egun hemen zitakean hire semea. Zer ikusi du bere denboran? Nihun ez dik kausitu aingeru begirale bat. Ez zian Judasik baizik herrian, denak ari bat bertziaren saltzen, hik atzo saldu naukan bezala. Pettan ene nagusia, norbait izana haiz denboran, orai altxazkik begiak zerurat buruz eta hire izpirituan ikusiko duk Bordaberria zaukala mintzo. Emakok arrapostu.

Pet : (Izerdi hotz batekin, burxoratua) Ah! Zer egin dut, zer ? Hoinbertze urte pasaturik, hoinbertze lan eginik, etxea saldu dut. Zer pasatu

zauk gogoan Bordaberri, zer ? Semea juan zauk bainan zer egin duk haren atxikarazteko. Utzi bahu poxibat etxearen gidari, gostu izpi bat har zezan. Ez gintelarik zerbaitetan akort, ixildu bahinz eta artetan semeari eman arrazoin. Ez Bordaberri, ez duk egin ordia. Zenbat idor agertu haizen hire semearen alde, hura mutil baten pare ezarriz. Obendun naiz, bai zinez obendun. (Norapait buruz seme itzul hadi, atea zabal duk, barka nezak otoi eta libro utziko haut denetan. Ni entseatuko nuk adixkidantza eta batasunaren hedatzen gure inguruan, gure herri ttipia izan dadin amodioaren familia. (Paper andana bat hartzen du harmerutik, eta xehatzen erranez). Ez, ez dut utziko etxea, ez dut saldu nahi. (Belhaunikatzen da eta begiak zerurat altxatuz). Jauna, egizu dei ene seme maiteari eta otoi lagunt nezazu. Hemen sortua naiz, hemen nahi dut hil.

SEIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua : Bordaberriko sukaldea.

Pettan - Kattalin - Albert - Domingo.

Kattalin ari da puska biltzen Albert-ek eta Domingok kanporat karreatzen duztela. Pettan ere han da bainan gogoia ez du lanean.

Alb : Tornu huntan juanen dituguia undarrak errazu ?

Pet : Ba hain segur ba hemengo hok ditiuk bakarrik eta ezkaratzeko harmairu zahar hura.

Dom : Errak, hau ezarriko diuk aintzinean gero puxka xehe horiek juanen dituk erdi hortan.

Kat : Errazie ezkaratz zokoan den furnego zahar hori ere ez dugu ez hemen utzi behar.

Alb : Ba preseski hura gibelian ezarriz, karga plomuan ukanen diuk, frango kokina duk gero arribantza hura.

Dom : Orai egoiliarrak izaitzarekin, bidea ere arranjatuko ditek beharba ?

Alb : Berehala segur segurra! helduden urtean ez bada ondokoan izanen duk.

Dom : Bon lot hadi hemendik karga ditzagun (ateratzen dira, Kattalin erhatza eskuan garbitzen hasten da. Pettan harat eta hunat ari delarik, bokanesa eskuan).

Pet : Gaixo Bordaberria, utzi behar hula ? Nik saldu behar hindutala hi ? Ez, ez dezaket sinhets.

Kat : Bakea emazu otoi, ez zaitela berritz has, aski entzuna dugu orai. Ageri zen ba paper guziak egin ondoan ez zela gibelerat egiten ahal.

Pet : Ahantz dezagun otoi, ez du balio orai mando hilari olorik emaita. Ahantz ba, aise da erraita, zer bilakatuko da orai etxe hau ? Lur guziak destruituko dira! barne hok oro tresna edo kabalez beteko ditzute.

Kat : Ixil zaitte otoi, zer behar duzu huntarik, ez da gurea gehiago.

Pet : Banaki nor jabetuko den bederen !

Kat : Zer importa du nor nahi izanik ere, notariaren eskuetan da guzia. Harek eginen du bere lana. Etkezaharrian bizi behar dugu gaur goitirik eta goazen aintzina gerokoak gero.

(Albert-ek eta Domingo-k undar puskak eremaiten duzte Kattalin-ek jatsa pasatzen duela)

Kat : (Pettani) Ez du balio orai huni so egitea, goazen!

Alb : Denak hemen ditugu orai. Prest gira, nahi baduzue jin.

Kat : (Pettani) Heldu zirela gurekin ala hemen egongo duzu ?

Pet : Jinen naiz nihaur ba, abiatzen ahal zirezte.

Kat : Bon beraz (so egiten du azken aldi bat barne guziari nigarra begian eta brau burua itzul eta partitzen da.

Pet : (Bakarrik) Gaixo Bordaberria, juaitei nuk bainan ez haut ahantziko, etorriko nuk ardura, hirekin bi solasen egiterat (argiak ilhuntsen dira) Ez haiz gehiago enea bainan ni hirea nauk : ez adiorik! bakarrik ikus arte.

Oyhala.

Joka-Iekua : Hiriko sukalde bat

Michel - M.Claire - Eric - eta ohakoan bertze bat.

M.C.: futil batean da ohakoaren ondoan.

Mic : Zerbait plazer zinukeya ?

M.C.: Ez ez, ez dut deusen gutiziarik, sutan naiz barne ttipi hotan aire-rik ez da batere sartzen. Neure burua arras flako kausitzen dut, uros naiz hargatik aingeru pollit hau ongi sortu baita mundurat. So egizu Michel zer gostuan lo dagon (Eric ateratua da) Michel hurbiltzen da ohakoari.

Mic : Amaren sudur pollit hori ukanen du.

M.C.: Ba eta aitaren irria (irriz) poxi bat malzurra (elgarri so)

M.C.: Uros gira bainan izigarri akitua naiz egun hotan. Aire kanbioa behar nukela erran daut medikuak, hemengo azantzek ere ez dautatela onik egiten. Bizkitartean norat juan gintazke. Aita eta amaren xoko hartan izan baginte bederen.

Mic : Ba hek ere badute berenaz aski eta ez hain segur gure enbe, arik

M.C.: Hala hori ere.

Mic : Igandean itxuli bat eginen dugu hiritik kanpo denbora ona balinbada bederen.

M.C.: Milesker Michel, beharrik bazaitut, ez dakit zer egin nezakeen zu gabe.

(Eric sartzen da letra bat eskuan erranez)

Eri : Maman le facteur est passé.

M.C.: (letra hartuz) Merci mon chéri. Ori ori zure izenean da.

Mic : (letra zabalduz) Ba berdin du ba. Hau Albert-en izlirioa da! ez du aspaldian berririk igorri. Zer gertatu zaio ote ?

M.C.: Hea zer dion ?

Adixkide maitea

Deliberatzen nuk bi lerroren izkiriatzera erraiteko osagarri onean kausitzen naizela eta pentsatzen diat zuek ere berdin zareztela Jainkoari esker. Aita eta ama ere pixkor dituk beren xokoan. Ieagan igandean azkenik solastatuak gaituk meza ondoan eta hetarik jakin diat alaba ttipi baten jabe zireztela zonbait egun huntan. Onhart zkitzue neure goresmen beroenak. Amak erran datak Marie Claire frango akitua zela eta pausu beharretan Pentsatzen diat hobekitzen ari dela eta desiratzen laster sendo dadien bi ttipi horiek baitukete amaren beharra, dudarik gabe. Zer zoriona hargatik seme alaba batzuen ukaita; parte hartzen dut zuen urostasunean.

Orai sujeta kanbiatzen diat erraiteko berri handi bat badugula auzoan. Duela sei urte gure Domingok ez zian ez hori pentsatzen bainan geroztik errotak egin dik bere itzulia. Ama ez dik soberakinik ontsa bere errematismoa heietarik eta berak ez dik oraino ezkontzeko famarik. Lanetan ez ditakek arriba eta aurten artzaina ere ezarri dik. Beraz dugun berri handia hau duk : Bordaberria saldu nahi duela eta nihauri eskaina zatak prezio on batean.

Mic: Aditzen duzu : Bordaberria saltzeko, orai sei urteren buruan ?

M.C.: Oino holakorik (karkulatu gabe) behar dugua erosi ? Hea gero zer dion.

Mic : Erosteaz eros niok bainan ikusten diat etxean ere badutala egin ahal. Alta uzteak ere pena emaiten zatak ba. Futxo ez zakiat ba zer egin. Hiri erraiten deat garbiki gogoan pasatzen nian udan kanpotiar horier aloyatzen ahalko niela puxka bat antolatu ondoan eta beharba hihaurek ere bahukela hemen bakantzen pasatzeko gutizia. Zer egin behar dut to gai-zoa ? Ala behar dugu biek erosi. Orro it hiza lehen ere hola artzen gintuan elgarrekin tratuan.

Mic : Errazu behar dugu erosi. Nola zautzu?

M.C.: Nik hango aire sanoaren falta senditzen dut ba eta jakin zazu gogotik itzul naitekela. Ahalge poxibatekin aitor dut bainan azkenean libro gira nahi dugunaren egiterat. Adinak beteak ditugu.

Mic : Gure etxan jakina ote dute ?

M.C.: Alber-ek erran diote ba hain segur.

M.C.: Ni beldur ezetz, hak nehoi pitsik erran gabe izkiriatu dauku.

M.C. : Eta gero zer dio bertzerik ?

Mic : Zaude, nun nintzan ? Ah ba (ahapetik) orroitu hiza lehen hola artzen gintuan elgarrekin tratuan : Zer egin behar dutan izkiriazatak otoi lagunduko nuk edo aski duk agert bat egitea. Ahalaz berria hedatu gabe nahi nizek erosi egitekotz. Aurten kabala horietan ere xantza ukan diat eta banikek horren saria bazterrean. Estona nintakek, bainan nahi bahu erosi preferantza utziko deat eta beharrez dirua ere prestatuko. Lehen ere akoomatu gaituk Bordaberrikoekin. Beraz erranak erran uzten zaituztet adixkideak. Bi potts ttipi horier, izan ontsa eta ikus arte.

Heia zer diokan ?

Albert.

M.C. : Michel behar dugu erosi. Jadanik badugu diru puxka bat bankoan eta Albert-ek prestatzen ahal badauku, nahi bezala ukanen dugu.

Mic : Ba maitea akort naiz. Berritz lotuko gira gure etxalde xaharrari. Sei urteren buruan ez nintzan oraino kontsolatua horren uzteaz, egun egiten naiz.

M.C. : Gaizo Albert nola estimatuko dugu ?

Mic : Egia duzu! gaizoa! Ba bainan ez gaiten amentsetan has gero lokartzeko

M.C. : Behar zinuek berehala juan, denborarik galdu gabe.

Mic : Banoa segidan (musu emanez deneri) Pena dut zuen hola uztea bainan gure urostasun osoa egun da haste (ateratzen da)

M.C. : (Amentsetan bezala) Zonbat eri hirietan, zonbat dolu bihotzetan, zonbat xoro bazterretan eta biga sendatuak gaurko egun huntan.

Oyhala.

Azken partea : Joka-lekua, berritz Bordaberriko sukalde xaharra.

Michel - M.C. - Albert - Domingo - Pettan - Kattalin.

Michel eta M.C. ari dira puxka guzien lekuratzen, lehengo xokoetan ahalaz, orai telebixta ere ezartzen dutela.

M.C. : Eric norat juana dugu ?

Mic : Etxe gibelean da josteta ari, gu baino urosago dugu naski hura.

M.C. : Hobe segurki alta gu ere hala gira.

Mic : Ba zinez hala da: nork asmatzen ahal zuen ere. Eta sarri aita eta ama gaixo heiek jinen zauzkularik, berritz gurekin bizitzerat.

M.C. : Baginaki zonbat handia den heien urostasuna ?

Mic : Amentsetan dira ba oraino; gaixoak.

M.C. : Bertze pare hura ez zauku ageri ?

Mic : Zaude trankil, jinen dira ba (bortan joiten dute) To nun aipa eta han gerta. Aintzina!

Dom : (sartuz) Agur jende onak, ari zireztea lekuratzen ?

M.C. : Eginen gira segurki.

Mic : Zato jar zaite.

Dom : Bertzeak ez direa jinak, handia xahar heientzat. Prest ditazke alta hain segur.

Mic : Ez dute berantuko ez orai. (arrabotz bat aditzen da)

Dom : Norbait bada naski. (Bortan joiten dute)

Mic : Aintzina.

Albert agertzen da. Pettan eta Kattalin gibeletik.

M.C. : Ah! azkenean. Bon! egun deneri pottak emaiten ditut (Micheli) zuk nahi ala ez !!

(Hasten da) adio Ama : zer nigarrez ? ez nigarrik egin gero egun)

Kat : Ez xitela inketa hortaz, plazerrezkoak dituxu.

(aitari) xuk aita zer diozu ?

Pet : Ni ez nuxu nigarrez hasiko ez, jakin zaxu ezetz. Behar dixiu moxkortu egun ba, ba egun ba lehen aldikotz. (Botoila bat kentzen du sakelatik eta baso bat. Ah! zaite denak, haugi Albert ta hi ere Domingo.

M.C. : (Micheli musu emanez) Ahantzi zintuda zu ?

Pet : (arnea emanez) Hea hurbil zizte eta denek baso beretik. (Domingori espaldatik lotuz) Hi ene denbora guzian partida ukan haut bainan egunetik goiti hoberenatarik ukanen hut.

Dom : Ba ni ere tzarra izana naiz ba, denak iretsi nahiz. Eta egun bertze-
ren heinean. Zer eginen da. Beharkol

Pet : Ah! Kattalin zauri zu ere. Ez penarik agert egun eta hi Michel, ene
semea : hitaz fier nauk. Hik ez duk aita balio bainan hura bezelako
hiru. Gaixo Bordaberria. Zer ! gaixo Bordaberria! Biba berritz Bor-
daberria eta haren auzoak. Gaizo Albert ta Domingo. Ale kantu bat
behar diuk eman denek (Sort lekua utziz geroz hasten dute, magne-
tofonak segitzen duela ezti ezti).

F I N